

Bihotza eta dirua

El Mundo del País Vasco, 1991-05-17.

Bizkaiko Diputatu Nagusia den *Pradera* jaunari egindako elkarrizketa bat irakurri dut herenegungo egunkari euskalduneari; galdera zuzenak eta erantzun garbiak. Kazetaritzarako eredu bat.

Hor erabiltzen du elkarrizketatuak, "burujabetza" eta "independentzia" bereizteko eta bakoitzaren funtzioa adierazteko, irudi egoki bat: "Burujabetasuna izen bat baino ez da; motor hori martxan ipintzeko dirua behar da. Burujabetasunaren motorra bihotza da, baina gasolina dirua da; bihotzak diru barik ez du ezertarako balio". Beraz, burujabetasunaren bihotza, motorra da, eta motore honen eragilea, gasolina, dirua. Konforme.

Gainera bi elementuak osagarriak izatez gain, ezinbesteko dependentzia dute.

Orain, bada ñabardura bat baino garrantzi handiagoa duen zerbait: dirua jarriko dugu bihotzaren aurrean ("bestela bihotzak ez du ezer balio") ala bihotzari emango diogu lehentasuna: bihotza gizona delako, lehen sortua, eta dirua, trukeak errazteko gizona berak inbentatua?

Nire irudiko (Hondarribian esaten dugun bezala), gizartearen bihotza, bihoztun gizona da, askatasunaren eta burujabetasunaren dirua dena, milaka urtean barrena hori lortzeko borrokatu dena eta askotan bizia bera eman duena; gaur arte eta hemendik aurrera ere eten gabe Paradiso horren bila bere bihotzaren motorrarekin bizi den artean aurrera joango dena, askotan eta askotan bera bezalako beste gizonak, eta gehienetan diruak ematen duen indarkeriaz, erosten edo zanpatzen badute ere.

Gasolina deitua izan den diru hori da, berez, aurretik motorra jartzen ez badiote ezer balio ez duena. Bihotza ere baduten idiak gurdiaren aurrean? Beti halaxe izan da Euskal Herrian.